

Kutixien balkoia: sendabelarrei eta espeziei buruzko ikastaroa

Herritarrek naturatik eta bere zikloetatik gero eta deskonektatuago bizi garen egungo testuinguruan, naturarekin berriz konektatzen lagunduko diguten keinu txikiak oso onuragarriak zaizkigu. Horregatik, mini-baratze ikastaro bat proposatzen dugu, ezagutzak transmititzeko eta praktikan jartzeko.



Donostia, 2024ko apirilaren 11.- Hazteko leku askorik behar ez duten eta aldi berean sukaldaritza-erabilera duten espezieak eta landare-barietateak izango dira ikastaro honetako protagonistak, hala nola espeziak, landare aromatikoak eta beste landare batzuk ere. Itsasne Mendiberri izango da ikastaroen arduraduna, Xomorro Taldeko kidea. Mendiberrik azaldu digunez, "ikastaroa bi egunetan izango da, apirilaren 18an eta 25ean, bi orduz, gazteleraz, Intxaurrendoko Kultur Etxean", eta saioen helburua izango da "balkoietan landatu eta erein daitezkeen landareen inguruan hitz egitea".

Sukaldean erabil ditzakegun landareen inguruan jardungo dute partehartzaileek, bakoitzaren berezitasunak eta erabilerak ezagutuz, esaterako espeziak, perrexila edota albaka, baina mintzagai izango dituzte, baita ere, balkoian landa daitezkeen sendabelarrak eta landare usanitsuak edo lurrintsuak ere, esaterako mihilua, erromeroa eta izpilikua, bai eta baratze arruntetan ateratzen diren barazkiak ere, gerezi-tomatea kasu. "Azken finean, landare-mota ezberdin asko dugu inguruan, bakoitza bere behar eta berezitasunekin, eta balkoi batean edota lur-sail txiki batean erraz aterako zaigu bata ez bada bestea; saiatzea da kontua", azaldu du Mendiberrik, eta gogoratu du saioan parte hartuko dutenen artean landaretxoak banatuko direla, nor bere etxeko balkoia martxan jar dezan.



Ikastaroaren xehetasunak

Datak: apirilaren 18 eta 25


Ordua: 17:00-19:00

Lekua: Intxaurrondo Kultur Etxea

Hizkuntza: Gazteleraz

Prezioa: 2 € (fidantza)

Izen emateak: www.cristinaenea.eu



Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eu | www.cristinaenea.eu

Patronoak | Patronos:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babesle iraunkorra | Colaborador permanente:



Un balcón gourmet: taller sobre plantas medicinales y especias

En el contexto actual en el que la ciudadanía vive cada vez más desconectada de la naturaleza y sus ciclos, realizar pequeños gestos que nos ayuden a reconectar con ella resulta muy beneficioso. Por eso proponemos este curso de minihuerto en la que se pretende transmitir conocimientos y ponerlos en práctica.



Donostia / San Sebastián, 11 de abril de 2024.- Las especies y variedades de plantas que no necesitan mucho espacio para su cultivo y que a la vez tienen un uso culinario, como especias, plantas aromáticas y otros vegetales serán las protagonistas de este cursillo de la que Itxasne Mendiberri, miembro de Xomorro Taldea será la responsable. Mendiberri nos ha explicado que *"el curso tendrá lugar durante dos días, los días 18 y 25 de abril, tendrán una duración de dos horas y se impartirán en castellano en la Casa de Cultura de Intxaurrenondo"*. Mendiberri ha añadido que el objetivo de las sesiones será *"hablar sobre las plantas que se pueden plantar y sembrar en los balcones"*.

Las personas participantes hablarán de las plantas que podemos utilizar en la cocina, conociendo sus peculiaridades y usos, como las especias, el perejil o la albahaca, pero también de las plantas medicinales que se pueden plantar en el balcón, como el hinojo, y las plantas aromáticas, como es el caso del romero y la lavanda, así como de las hortalizas que se extraen habitualmente de las huertas, como el tomate cherry. *"Al fin y al cabo, tenemos a nuestro alrededor muchos tipos de plantas diferentes, cada una con sus necesidades y particularidades, y en un balcón o en un pequeño terreno alguna de ellas nos saldrá muy fácilmente; se trata de intentarlo"*, explica Mendiberri, quien recuerda que entre los participantes en el programa se repartirán plantitas para que cada uno ponga en marcha el balcón de su casa.



Detalles del curso

Fechas: 18 y 25 de abril


Horario: 17:00-19:00

Lugar: Casa de Cultura Intxaurreondo

Idioma: Castellano

Precio: 2 € (fianza)

Inscripciones: www.cristinaenea.eu



Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eu | www.cristinaenea.eu

Patronoak | Patronos:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babesle iraunkorra | Colaborador permanente:

